

## AUTONOMIA PERTSONALA ETA ZAINKETAREN ETIKA

### IRAKASLEENDAKO JARRAIBIDEAK

#### ZAINTZEN IKASTEIA, PERTSONA IZATEN IKASTEIA

Elkarrekiko zaintza gizakia definitzen duten oinarriko ezaugarrietako bat da. **Zaintzak gizatiartzen gaitu.** Zaintzaren lege soziala dugu ezaugarritzat eta indartsuenaren biziraupenaren lege naturaletik desberdintzen gaitu. Soilik espezie gisa elkarri lagunduz biziraun eta aurrera egin dugu. Soilik gizon eta emakumeak elkarri zainduz pertsona egiten gara.

Pertsona izaten ahal gara soilik aitortzen dugunean besteak gure estatus eta duintasun berekoak direla, berdina garelako elkarri aitortzen dugunean. **Berdintasunak gizatiartzen gaitu.** Berdintasuna da gizatasunaren oinarri. Hori dela eta, berdintasuna da zaintzaren eta tratu egokiaren oinarri eta jatorria. Berdintasun eza tratu txarren oinarri eta jatorria den bitartean.

Zaintza ez da berezkoa. **Inor ez da jaio zaintzen jakinda.** Ez dago zaintzarako generik. Batzuek ikasi egiten dute eta beste batzuek ez:

- ▶ Zaintza **ikusiz eta arituz ikasten da**, praktikatu. Zaintza gizar-tean ikastea da (familian, eskolan, hirian, hedabideetan...).
- ▶ Gure gizartean, tradizioz, batez ere emakumeak arduratu dira zaintzaz, eta **familiaren ongizateari** eskaini diote zaintza hori. Baina, gizonak emakumeek bezala ikasten dute, mutilek eta neskek berdin ikasten duten bezala.
- ▶ Gure eskolak **zaintzarako hezten ahal ditu ikasleak, bai neskek, eta bai mutilak.** Pertsonak heztea gizonak eta emakumeak heztea da, modu autonomo eta arduratsuan zaindu eta bere burua zaintzen dutenak.

#### ZAINTZAREN GAKOAK

Pertsona bakoitzaren, beste pertsonen, harremanen, naturaren, giza sormenaren, planetaren... zaintza. Zaintzak erakusten du bizitzarekiko gure **autonomia** eta gure **ardura**, gure bizitzarekiko bereziki eta bizitzarekiko orokorrean. Ziurrenik gure ikasleek horrela ulertuko dute, eta gainera interesgarria eta beharrezkoa den zerbait irudituko zaie.

- ▶ Baina galdera da, nola antolatzen da zaintza? non eta nola egiten da? **nork zer egiten du?** baloratzen da edo ez? zein baloratzen da eta zein ez? zergatik? zein ondorio ditu? etab.
- ▶ Zaintzak, beste edozein giza jardueraren eta lan gisa ondokoak behar ditu: prestakuntza, ikaskuntza, baliabideak, dedikazioa, denbora... Nork eskaintzen dio denbora hori? Nork ez? Zein ondorio dakartzat **eskainitako denbora** desberdin horrek bestelako jardueraren pertsonal, sozial eta lanekoak garatzeko?



#### begiratu, aldatzeko

Hezkidetzaren aldaketarako metodologia bat da: begiratzeko ulertzeko eta aurkitzeko, aurkitzea eta aldatzea ikasketetako ikasleek eta irakasleek bizitzan disfuntzioak sortzen dituenak.

**Eskola mistoa, neska eta mutilena**, curriculumaren atal femeninoak gabe osatu zen. Eskola mistoa da, baina neskek bertan izanik ere ezaugarri maskulinoak ditu. Eskola mota honek ez ditu berenganatu familia zaintzaren arduraren jakintzak eta ikaskuntzak.

Eskola misto maskulinoak **naturalizat hartu** ditu neska eta mutilengan ontzat eta ziurtzat ematen diren **portaeak**, berdintasunerako hezkuntza planteatu gabe batzuekiko eta besteendako. Urteetan zehar arreta-gunea neskengan jartzeak, eskola erdi hori aldatzeko begiradan (emakumeek curriculumari egin dizkieten ekarpenik gabekoa, eremuen erabilera eta ikuspuntu maskulinoarekin, etab.) guztiendako izan den guztion eskola inklusiboan.

#### eta mutilak zer?

Berriki hezkuntza-keza nagusia mutilengan jarri da: eskolako porrota eta eskola uztea, jokabide antisozialak, hilkortasun handia, istripuak eta jokabide arriskutsuak direla eta... Egindako ikerketek ondokoak adierazi dute:

- Aukera murriztagoa dute ikasketak eta lanbide-karrera hautatzeko. Horieta asko "debekatuak" daude gizonendako.
- Munduan egoteko modu oldarkorragoak eta autoldarkorragoak garatzen dituzte. Indarkeria ikasten dute

beren maskulinitasunaren osagai eta adierazpen gisa.

- Beren nortasun eta portaeratik baztertzen dute femeninoa edo ustez femeninoa den oro. Neska bat bezalakoa izatea "azkenekoa da, okerre-na".
- Mutilen taldetik baztertuta izatea oso gogorra da, sufrimendu handiz eta isilean bizitzen den zerbait da.

## balioetan heztea

Sexismoak modu negatiboan mugatzen eta baldintzatzen ditu neska eta mutilak, era desberdinean.

**Hezkidetzak** proposatzen du neska eta mutilak heztea bai balio sozial maskulinoetan eta bai femeninoetan, bereziki ondokoetan:

- Errespetua.
- Erantzukizuna.
- Pertsonak zaintzea.
- Autonomia pertsonala.
- Konfiantza.
- Elkarrekiko ezagutza eta aitortza.

Horiek guztiak baliozkoak diren balioak dira, ikasleak, emakume zein gizon, hobeki bizi daitezen eta guztion bizitza erraztu dadin.

## errespetua

Ikasgelan harremanak errespetuzkoak ez badira ez da posible heztea. Errespetuak duintasuna ematen digu, gizatiartzen gaitu. Errespetua ez da berezkoa den zerbait. Errespetua **irakatsi eta ikasi egiten** da, irakurtzen eta zenbatzen bezala, pixkanaka, silabaz silaba, zotzez zotz. Musikarekin, abestiekin, ipuinekin, keinuekin, erri-tuekin, etab.

Errespetua norberarekiko, gizon edo emakume izanda, eta errespetua beste pertsona guztiakiko. Nire sexuak ez diren pertsonen %50ekin hasita, ni bezalakoak ez direnak eta sexualki identifikatzen naizen taldetik desberdinak direnak. Ikaskuntza hau oinarritzakoa, lehentasuneko eta jatorritzakoa da. Hasieratik egiten ez bada, ondorengo egitura kognitibo osoa gaizki errota eta eraikia egonen da.

Mutilak diren ikasleei **onartzen badiegu** neska diren ikasleei erres-

## ZAINKETARAKO HEZI, AUTONOMIA BALORATU

Gure ikasleek hautematen duten helduen gizarte errealitateak **aitortza handiagoa** ematen dio munduaren eta lan produktiboaren balio, esperientzia, arau, portaera eta abarrei. Gure ikasleak, neska eta mutilak, ohartzen dira balio horiek direla helduen munduan protagonismoa hartu eta arrakasta ematen dutenak, beraz, balio horiei gehiegizko balioa eman eta imitatzeari ekiten diote.

- ▶ Honek berarekin dakar **gutxiestea lan produktiboa** eta zaintza, beren balio, esperientzia, portaera, ikasketa eta abarrekin.
- ▶ Gutxieste prozesu honek berarekin dakar zaintzaren eta horretaz arduratzen diren pertsonen, hau da, batez ere emakumeen **prestigio galera, garrantzia kentzea eta bazterkeria**.
- ▶ Beraz, eta aurrekoaren ondorio gisa, ez emakumeek ez gizonak, ez neskek ez mutilek ere ez dute zaintzaz arduratu nahi, **eragozpen eta zama gisa hartzen baita**, denbora kendu eta "benetan garrantzitsua den honetan" aritzea eragozten duelako.

Hezkidetzak zainketa aldarrikatzen du eta pentsatzen du lotura handia duela bizitza kalitatearekin eta pertsonen ongizatearekin. Are gehiago, zaintza jartzen du **hezkuntza prozesuaren erdian. Oinarritzakoa eta nahitaezko balioa** ematen dio hezkuntzan eta neska eta mutilen eskola prestakuntzan. Zaintzarako heziketarik gabe ezinezkoa da berdintasunerako hezkuntzarik izatea.

Hezkidetzak azpimarratzen du **zaintzarako hezkuntzarik gabe**, neska eta mutilak:

- ▶ Ezin dutela autonomoak izan eta ezta osorik garatu ere, ezin dutela pertsona osoak izan.
- ▶ Okerrago ariko direla harremanetan eta okerrago biziko direla, ez direla zoriontsu izanen.
- ▶ Ezin dutela izan beharrezkoa den bizitza kalitatea beren bizitza profesional, soziala eta herritarra osotasunez eta asetasunez garatzeko.

## HEZKIDETZAK ZAINZARAKO HEZKUNTZA ALDARRIKATZEN DU IKASLE NESKA ETA IKASLE MUTILENTZAT

Hezkuntzak zaintza aldarrikatzen du, eta honekin batera bere balio, jakintza eta praktika onuragarriak. **Beharrezkotzat** aldarrikatzen ditu neska eta mutilendako, gizon eta emakumeendako. Zaintzarako heziketarik gabe, gizon eta emakumeek ez dute izanen **beharrezkoa den ahalmena** beren bizitzaren eguneroko alderdi familiar eta etxekoei autonomiaz eta arrakastaz ekiteko. Ez dira izanen modu integralean garatutako pertsonak. Guztiz garatutako pertsonak izan daitezen beharrezkoa izanen da zaintzaren alderdi eta osagai desberdinak ezagutzea, horiek modu egokian baloratzea eta berezko ardura gisa onartzea ondoko alderdietan: banakakoa, pertsonala, familiarra eta soziala.

Pertsonen ongizaterako zaintza aldarrikatzea ez da amaitzen eremu pertsonal eta familiarrean, . gizartearen eta lanaren eremutik haratago doa. Familiendako ezinezkoa da zaintzaren lana eta ardura guztia bere gain hartzea, egungo gizarte konplexuan, beharrezkoa da ere **erantzukidetasun** sozial eta publiko handia.

## LAN KARGA, GUZTIRA, LANEKO DENBORA

Laneko denbora pertsona batendako ez da soilik bere lanaldia. Zaintzaz elkarrekin arduratzea ere denbora eskatzen du. Lan karga, guztira, pertsona batek egiten duen **lan erreproduktiboa** gehi **lan produktiboa** da. Lan karga, guztira, modu desberdinean banatzen da emakumeen eta gizonen artean, gizarte- eta kultura- jarraibideak direla eta. Eskoletan ikusten ahal da mutilen iruditerian oraindik ere "lan egitea eta diru asko irabaztea" dagoela, baina ez ordea familia eta zaintza, nesken iruditerian ez bezala.

Bestalde, kontuan izan behar da **bizitzaren ibilbideak** (familietakoa haurrak, nerabeak eta adinekoak) eta bizitza zikloaren **egoera eta behar desberdinek** (ondorengoak, aurrekoak, pertsona eriak etab. zaintzeak) baldintzatzen dutela gizon eta emakumeen denboraren erabilera. Adibidez, emakume askok lanean berandu hasteak eta lan merkaturatu irauteko dituzten zailtasunak denboran bat datoz, hurrenez hurren, haurren hazkuntzarekin, eta hazkuntza hau amaitu edo arintzean, denboran bat datoz familiako adinduen zaintzarekin. Hau da, emakumeek familia zaintzearen ardura izatearekin.

## DENBORAREN ERABILERAREN GAINEKO EUROPAKO DATUAK

Europa osoan alderagarria den "Eurofound, harmonized time use Surrey" denboraren erabileraren eta etxeko lanaren gaineko inkestaren emaitzak agerikoak dira:

- ▶ Emakumeek **askoz denbora gehiago** eskaintzen diote lan erreproduktiboari gizonetzkoek baino.
- ▶ Emakumeek egiten duten **lanaldi partzialeko lan ordainduak**, emakumeen lan karga, guztira, handitu egiten du (presentzia edo lanaldi bikoitza) eta berdintasun gabezia sakondu egiten du.
- ▶ **Gizonen lanaldi partzialak** ez du balio etxean lan gehiago egin dezaten. Orokorrean gizonen denbora pertsonala edo profesionala handitzen da (prestakuntza osagarria aldaketarako eta lan hobekuntzarako, etab.).
- ▶ Haurrak daudenean amen **aisialdi denbora** "haurren aisialdia" izan ohi da. Aitek, aldiz, beren aisialdi pertsonalari eusten diote.

Denboraren erabilerari buruzko Gutiérrez-Domenech-ek 2007an egin-dako inkestatik ondorioztatzen diren datu esanguratsuak:

- ▶ **Oinarrizko zaintzaren** denbora proportzionalki handiagoa da. Bada denbora horretan (janaria prestatu, haurrak eskolara eraman, arropa garbitu eta antzeko lanetan), gizonen eta emakumeen arteko aldeak handiagoak dira. Aldiz, aldea askoz txikiagoa da proportzioz denboraz txikiagoa den **kalitatezko zaintzan** (jostatu, planak egin, txangoak...).
- ▶ Bikote **batek haurra duenean**, orokorrean, eta amak posible baldin badu, ordu gutxiago aritzen da bere lanean (eta gehiago etxean) eta aita ordu gehiago aritzen da lanean (eta gutxiago etxean).
- ▶ Genero-arraila murriztu egiten da gurasoen hezkuntza maila gora doan heinean.
- ▶ Gizonezkoek zaintzarekin duten konpromisoan bada nabarmentzen den faktore bat: lanetik **ateratzeko ordua**.
- ▶ Aitatasun edo amatasun **baimen** gehienak amek erabiltzen dituz-

petua galtzea, mutilak zigortzen ditugu maskulinitasun oldarkorra garatu eta transmititzera, eta horrek arriskuan jarriko ditu bai beraiek bai beren inguruko pertsonak.

### erantzukizuna

Arduratsu izaten irakasteari uzten badiogu (adibidez, arduratsua den neska bat arduratsua ez den mutil baten ondoan jartzen badugu, mutila ikasgaiak gaitzitzen laguntze aldera), pertsona arduragabeak bihurtuko ditugu, besteekiko mendekoak, orokorrean beste emakume bat, mutilek (eta kasua bada neskek) egiten ez dutena egin beharko duena. **Arduragabekeriak mendetasuna eta gehiegikeria dakar** hirugarren pertsonetiko (emakumeak sarritan).

**Erantzukizuna batzuei eta besteei berdin eskatzen ez badiegu, gure autoritatea hondatzen ari gara.**

Neska eta mutilei erantzukizun bera eskatzen ez badiegu klaseko martxan, materialen egoeran, lanen aurkezpenan, arretan eta parte hartzean, etab., erantzukizunak banatzen baditugu pentsatuz batzuk mutilenak direla eta besteak neskenak, ikasleak ohartuko dira eta gure autoritatea galduko dugu beraici zerbait esateko.

### autonomia pertsonala

Erabaki pertsonalak hartzea erantzukizunetik banaezina da. Gure bizitza irizpide eta baliabide askatasunaz zuzentzeko autonomia ez da bateraezina pertsonen arteko harremanekin. Are gehiago, guztiz autonomia den pertsonak badaki pertsona guztiak beharrezkoak direla besteendako, eta baita alderantziz ere. Elkarrekiko mendetasun hori sanoa eta probetxuzkoa izan dadin, elkarrenganako eta autonomia pertsonaletik sortua behar du izan.

**Erantzukizunaren eta autonomia pertsonalaren helburua** da besteen mendeko pertsonak ez izatea, eta, beraz, ez kentzea denbora besteei, eta ez sartzea haien bizitzan. Jarrera indibidual horretatik pertsonen arteko harreman libre eta sanoak ezartzeko (afektiboak, laneoak, sozialak, sentimentalak, familiarak, etab.).

## zaintza

Zaintzea da goreneko balioa. Zaintzea ardura hartzea da, eskuzabaltasunez eta ezagutzaz. Zaintzak elkarrekiko konfiantza sortzen du eta baita norberarekiko konfiantza ere. Zaintzak denbora eta dedikazioa eskatzen du, eta baita energia eta ahalegina ere.

**Pertsonen zainketa** etxeko lanak egitea baino zerbait gehiago da. Bizi garen pertsonen ongizateaz arduratzea da. Ongizate horrek, orokorrean lan horiek hartzen ditu bere baitan, baina ez da eginkizun horiek burututa amaitzen. Zaintza da kontuan izatea, oroitzea, norbaiten tokian jartzea, denbora eskaintzea, hitzak eskaintzea, lagun egitea, kontsolamendua ematea, esnatzea, eskatzea, laguntzea, fidatzea, irri egitea, egotea, deitzea, etab.

Zaintza etxeko lanak egitean ardura partekatzea da ere. Ez da "etxean laguntzea". Etxeko pertsonen arduratzea da, eta horretarako, beste gauzen artean, etxeaz arduratzea. Lana eta denbora banatzea eta partekatzea da, denbora desberdina, inori kalte egin gabe beharrak betetz. Beste pertsonen bizitza-denbora ebasi gabe.

## zaintza galtzea

Nahiz eta neskek, eredu maskulinoaren orokortzeagatik, zaintzarekiko ardurari utzi badiote ere, oraindik ere **mutilek, ikasleek** zaintzaren gaineko ikaskuntza txikiagoa egiten dute. Ondorioz, ez dakite zer den zaintzea, ez dute zaintzaren etika ulertzen... eta zaintza galdu egiten dute.

Zaintza **erabilgarria, atsegina, ona eta atsegingarria** da, eta hori guztia galtzen dute. Zaintzen duenak konfiantza eta auto-estimua sentitzen du, eta hori galdu egiten da. Zaintza jasotzen duenak zaintzailearekiko konfiantza eta estimua garatzen du, eta hori galdu egiten dute. Enpatiareneko ikaskuntza, pertsonen arteko elkar ulertze intimoa galtzen dute. Bizitzaren zati handi bat galtzen dute. **Giza bizitzaren gakoa (sekretua)** galtzen dute, gizatiartzen gaituen eta espezie gisa definitzen gaituen elementua: elkarrekiko zaintza.

te, berezkozat jotzen baitituzte eta ez dituzte laga nahi. Aitek uste dute lan aukerak galduko dituztela eta beren enpresetan ez da espero horiek erabiltzea.

## DENBORAREN ERABILERA GIZON ETA EMAKUMEEN ARTEAN

- ▶ **Gizonezkoek** Espainian lan produktiboari 4:39 ordu eskaintzen dizkiote egunero eta 1:35 ordu etxeko lanari.
- ▶ **Emakumezkoek** Espainian lan produktiboari 2:26 ordu eskaintzen dizkiote egunero eta 4:55 ordu. etxeko lanari.
- ▶ Gizon baten eguneko **bataz besteko lanaldia** 8:25 ordukoa da, eta emakume batena 6:51 ordukoa.
- ▶ Politika publiko ezberdinek (legeak, baimenak...) egoera ezberdinak sortarazten dituzte Europako herrialde desberdinetan: **gizon suediar** batek etxeko-familiako lanari eskaintzen dion denbora emakume suediar batek eskaintzen dionaren erdia da. Espainian gizonezkoek 3 aldiz gutxiago eskaintzen diote.

## ZER EGITEN DUTE GIZONEZKOEK ETXEAN?

- ▶ **Erdiak ez du ezer egiten.** Ordenagailuan jostetan-lanean aritzen dira, telebista ikusten dute, periodikoa irakurtzen dute, deskantsatu-lo egin-siestan aritzen dira, seme-alabei diziplina ezartzen...
- ▶ Zerbait egiten dutenen artean, erdiak **janaria** prestatzen du, baina emakumeek eskaintzen dioten denboraren erdia eskaintzen diote (gizonezkoak 50 minutu, emakumezkoak 1:48 ordu). Gizonezkoen %28ak mantentze lanen bat egiten du etxean (garbiketari egunero 15 minutu eskaintze dizkiote, batez beste, emakumeek ordubete).
- ▶ **Mito** bat bada etxean eraikuntza eta konponketa lanak egiteari buruzkoa: Soilik %6a aritzen da horietako lanen batean.
- ▶ **Arropaz** ez dira batere arduratzen: Soilik gizonezkoen %3ak eskaintzen dio denbora lan honi.

## DENBORA INDUSTRIAL MASKULINOA

Gure gizartean **lan industrialaren eta produktibitatearen nagusitasuna** eta lehenetasuna beste guztiaren gainetik dago. Oso ikusmolde industrial eta maskulinoa da, gizarte osoan eragiten duena. Gizonezkoen iruditeriaren lan eta gizarte antolaketa honetan:

- ▶ Egunak dituen 24 orduak horrela banatzen dira: 8 ordu lo, 8 ordu lan eta 8 ordu aisialdi. **Eskema honetan ez da aurreikusten ordaindu gabeko lanik.**
- ▶ Ongizatea **kontsumo maila handiarekin** lotzen da. Zaintza ez da lotzen ongizatearekin eta kalitatearekin.
- ▶ Ingurune honetan **emakumeei ezinezkoa zaie lana eta familiarako eginkizunak uztartzea**, eta lan denbora metatzen dute. Sistema honekin "lana gizonenena da, eta nekea emakumeena".
- ▶ Badira **mito faltsuak**, besteak beste emakumeen lan absentismoa eta **zenbait neurri une puntualetarako** (jaiotza, adopzioa...), ez iraukorrak diren eguneroko lanendako.

Hala ere, **pertsonen zaintza eta ongizate beharren nagusitasunak** sortzen ahal ditu bestelako lehenetasun eta antolaketa mota batzuk, denboraren bestelako erabilerak eta arduren bestelako banaketa.